



# konposta egitea

## Zer da konposta egitea?

Prozesu biologikoa da, organismo bizidunek, animalia txikiak eta, batez ere, bakterioek eta onddoek egina. Hondar organikoen (sukalde-hondarrak, baratzeakoak, simaurra, hostoak eta abar) deskonposizio kontrolatu eta aerobikoa da, hau da, oxigenoa dagoela. Horrela, hondar horiek **konpost** bihurtzen dira. Konposta luraren antzeko itxura duen goi kalitateko ongarria da.

Denboraren joanean, hondar organikoak humus bihurtzen dira. Humusa beltza da. Konposta zenbat eta ilunagoa izan, humusa hainbat eta hezeagoa egonen da eta egonkorragoa ere izanen da. Beharren arabera, konpost gazteagoa aplikatuko dugu (landareak elikatzeko) edo onduagoa (lurrak erreserba handiagoa izan dezan materia organikoari dagokionez, humus gisa).

### Ontze denboraren arabera, honelako konposta lortuko dugu:

- Konpost freskoa edo gaztea: 3 hilabete.
- Konpost ondua: 5-6 hilabete.
- Lurrustela: Urtebete edo gehiago



Geotipa por Ferrninh Loufa Escocia

## Konposta egiteak dakartzan onurak

- Materia organikoaren zikloa itxiko dugu. Hondar organikoak birziklatu eta zabor gutxiago iristen dira zabortegira edo errauskailura.
- Hondar organikoak errazago baliatuko ditugu, haien bolumena urritzen delako.
- Nola halako bolumena duten metetan (1m<sup>3</sup>-tik gora) eta, tenperatura beroaren ondorioz, nahi ez ditugun belar-haziak inaktibatu eta germen patogenoak hiltzen dira.
- Konposta egiteko prozesuan, elementu mineralak forma egonkorragoetan eraldatuko dira.
- Goi kalitateko ongarri organikoa lortzen da, mikrobioetan aberatsa, eta horrek luraren ekosistema hobetuko du.
- Ez dario usain txarrik.

# Konposta egiteko kontuan hartu beharreko gomendioak

## Materiaren jatorria

Karbonoan aberatsak diren materialak txandakatzen dira (materia lehorra: lastoa, azalak, belar lehorra...) Nitrogenoan aberatsak diren beste materia batzuekin (simaur freskoa, landare-hondar berdeak, sukalde-hondarrak eta abar).

## Materialen tamaina

Zatiek tamaina bertsua izan behar dute, 1 eta 5 cm artean.

## Hezetasuna

Abiaturuko materialak hezea egon behar du, baina ez busti-bustia. Prozesuan, kontuz ureztatuko dugu, euri moduan, materiala ez trinkotzeko. Meta lehorregia badago, konposta egiteko prozesua geldiaraziko da eta, hezegegia badago, trinkotu daiteke eta, airearik ezean, usain txarra isuriko du.

## Aireztapena

Meta egitean, ez ditugu materialak zanpatuko. Zuntzeko materialen bat erabil dezakegu, xehatu gabe, meta egituratzeko; bestela, aireztapen-bideak egin ditzakegu. Aldizka irauliko dugu, materialak nahasteko eta airearen zirkulazioa sustatzeko.

## Temperatura

Konposta egiteko prozesua 45-60°C artean gertatzen da. Ez du 70°C-tik gora pasatu behar. Aireztapenaren, itzalaren eta hezetasunaren bidez kontrolatuko dugu.

## Lekua

Mikroorganismoen jarduera ziurtatzeko, komenigarria da meta lurrraren gainean egitea. Meta handietan, interesgarria da lurzorua lixibiatu nitrogenatuetatik babestea, 20-40 cm-ko zuntz-geruza baten bidez. Konposta gutxienez 50 metrora eginen dugu ibai eta erreketatik, ura ez kutsatzeko. Meta euritik babestu behar da. Horretarako, airea pasatzen uzten duen material edo sistema bat erabiliko dugu. Udan leku freskoa aukeratzea komeni da, itzalean, hezetasun egokia ziurtatzeko.

konposta  
egitea

CPAEN  
NNPEK  
EKOLOGIA



cpaen.org  
navarraecologica.org